

Gender A B C

Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa



Giza eskubideak eta haurren eskubideak

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa

Giza eskubideak eta haurren eskubideak

Heziketa-modulu hau **TERRE DES FEMMES** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Lur-eremu berri batera hegala egitea</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	7
2. jarduera: <i>Haurren eskubideak arrantzatzen</i>	13
• Testuingurua	13
• Gidoia	13
• Jarraibideak	14
3. jarduera: <i>Haurren eskubideen grafitia</i>	16
• Testuingurua	16
• Gidoia	16
• Jarraibideak	17
Saioaren egitura	18
Moduluen zerrenda	19

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Giza Eskubideak unibertsalak, banaezinak eta besterenezinak dira. Zuzenbide zibila zein eskubide politikoak barne hartzen dituzte, esaterako, bizitzeko eskubidea, integritate fisikoa eta adierazpen-askatasuna. Giza eskubideak legeria-sorta batekin babesten dira. Horietako lege esparru bat haurren eskubideak dira: haurrek babes berezia izateko eskubidea dute, esplotazioa eta abusua jasateko zaurgarriak baitira. Horrela, Haurraren Eskubideen Gaineko Konbentzioa funtsezko akordio bat da, eta 18 urte baino gutxiago dituzten haur guztiei ezartzen zaie. Nazio Batuen konbentzio hori haurraren eskubideak babesteko lehenengo tresna legalki loteslea da, eta lau funtsezko printzipio jasotzen ditu: diskriminaziorik eza, haurrarentzako asmorik onenak izatea, bizitzeko eskubidea, biziraupena eta garapena izatea, eta haurraren ikuspegiak errespetatzea. Arauzkoak dira.

Modulu honek ingurune demokratiko, baketsu eta errespetagarri batean bizitzeko gaitasuna deskribatzen du, hori ez baita naturaltasunez sortzen. Demokrazia batean bizitzeko funtsezko ezagutzak, gaitasunak eta balioak bizitza osoan ikasi eta elikatu beharko lirake, esperientziaren eta praktikaren bidez; horretarako, ingurune demokratiko batean bizi eta jardun beharko litzateke, gazte-gaztetatik¹.

Giza eskubideen arloko heziketaren funtsa hori da. Are gehiago, generoan oinarritutako indarkeriari aurre egiteko, giza eskubideen arloko heziketa funtsezkoa dela erakutsi da.

2. Gai nagusiak

- Giza eskubideak / haurren eskubideak: parte-hartzaileek bere erantzukizunak eta eskubideak zein diren ikasiko dute, baita horiek zer egoeratan ezartzen diren ere.
- Premiak eta nahiak: zer den funtsezkoa bizirauteko, eta garapena eta ongizatea izateko.
- Besteen eskubideak errespetatzea: ezagutzatik praktikara.

3. Gako-hitzak






*Giza eskubideak • Haurren eskubideak
Eskubide zibilak eta politikoak • Eskubideen adierazpena
Eskubide osoak • Konbentzioa • Lege gogorra
Eskubide ez indargabegarriak • Berrespena • Lege arina*

¹ Europako Kontseilua, *Compasito*, 2007, online eskuragarri hemen: <http://www.eycb.coe.int/compasito/>

4. Ikasketa-xedeak

- Eskubideak eta erantzukizunak zerdiren ikastea.
- Parte-hartzaileak beren komunitateko kide aktiboak eta arduratsuak izan daitezen hezteak.
- Bizitzarako eta garapenerako eta ongizaterako funtsezkoa zer den ikastea.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Helburu-adina	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ²
1	Lur-eremu berri batera hegal egitea	6-8 urte 9-12 urte	45 minutu	<ul style="list-style-type: none"> • Haurraren Eskubideen Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa)³ • Gutun-azala • Prestatu "Nahiak eta Premiak" izeneko txartelak (Haurren Eskubideak, esaterako: "Elikadura") • Papera • Itsasgarria 	☆☆☆
2	Haurren eskubideak arrantzatzen	6-8 urte 9-12 urte	50 minutu	<ul style="list-style-type: none"> • Haurraren Eskubideen Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa) • Arrain itxurako txartelak haurren eskubideen eta erantzukizunen gaineko uztaiekin eta irudiekin • Kanabera amuarekin • Horma-irudiak 	☆☆☆
3	Haurren eskubideen grafia	6-8 urte 9-12 urte	45-60 minutu	<ul style="list-style-type: none"> • Haurraren Eskubideen Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa) • Prestatu txartelak eskubideekin • Markagailuak • Margoak • Margotzeko pintzelak • Kartoi meheak • Ehuna 	☆☆☆

² Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez "oso gomendagarria" den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

³ Ikus haurrentzako bertsioa (CRC), online eskuragarri hemen: http://www.eycb.coe.int/compasito/chapter_6/4.html

II - atala

JARDUERAK

1. jarduera Lur-eremu berri batera hegal egitea⁴ ☆☆☆



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 30
Segimendua: 10



Materialak

- Haurraren Eskubideen Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa)
- Gutun-azala
- Prestatu txartelak "Nahiak eta Premiak" hitzekin
- Txartel zuriak
- Papera
- Itsasgarria



Helburu-adina

6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Jarduera honetan zehar, parte-hartzaileek **ikasiko dute zer diren beren "Premiak" eta "Nahiak"**. **Ikasiko dute nola bereizi benetan premiazkoa dutena, eta nahi dutena baina horren premiarik ez dutena.** Gizakien premiak eta giza eskubideak konektatzen ikasiko dute.

→ GIDOIA



A Parte-hartzaileei eskatuko diegu imajinatzeko globo aerostatiko baten saskian sartzen direla herrialde berri batera bidaiatzeko. Inoiz ez da gizakirik joan Lurraren alderdi horretara, hau da, mundu berri bat ezartzen aitzindariak izango dira.



B Ondoren, parte-hartzaileak lau edo bost lagun arteko taldeetan banatuko dira.

⁴ Honako honen bertsio egokitua: *Compasito*, 27. jolasa. Online eskuragarri hemen: http://www.eycb.coe.int/compasito/chapter_4/4_27.asp



Talde bakoitzari gutun-azal bat emango diogu "Nahiak eta Premiak" txartelekin, non azalduko den mundu berrira bidaiatzeko zer gauza hartu behar diren bizirauteko saihetsezinak direlako.



Talde bakoitzari eskatuko diogu gutun-azala irekitzeko, txartelak banatzeko eta txartel horiek aztertzeko. Denbora nahikoa badute, txartel zuriak banatu ahal izango ditugu parte-hartzaileen artean, beren ustez eduki beharko edo nahiko lituzketen gauza gehigarri batzuk gehitzeko aukera izan dezaten.



Azalduko dugu globo aerostatikoa prest dagoela aireratzeko, eta kontakizun honi ekingo diogu:

"Hasieran, hegaldia oso atsegingarria da. Eguzkia distiratsu dago eta dena baketsua da. Hala ere, bat-batean, ekaitz handi bat hasi da, eta globo aerostatikoaren saskia astintzen hasi da. Izan ere, altitudea galtzear dago! Zure hiru txartel saskitik kanpora bota behar dituzu globo aerostatikoa zeruan mantendu ahal izateko."



Talde guztiei galdetuko diegu erabakitzeke zer bota nahi duten eta azalduko diegu ezingo dituztela gauza horiek berreskuratu. Baztertutako txartelak bildu eta elkarrekin jarriko ditugu multzo batean.



Eta kontakizunarekin jarraituko dugu:

"Azkenean, ekaitza pasatu da. Lasaitu egiten dira denak. Hala ere, eguraldiaren partearen arabera, 5. kategoriako urakana dator globo aerostatikorantz. Urakanari biziraun nahi badiozue, beste hiru txartel bota behar dituzue saskitik kanpora! Gogoratu: ez bota herrialde berrian bizirauteko beharko zenukeena."



Berriz ere baztertutako txartelak bildu eta multzo batean gordeko ditugu, eta ondoren, kontaketaarekin jarraituko dugu:

"Hurbil-hurbiletik pasa da! Zorionez, laster herrialde berrira iritsiko zarete. Denok zaudete oso pozik. Baina horizontean lurra ikusi bezain laster, hegazti erraldoi batek zuen kontra jo du, eta zulo bat egin du baloiaren ehun leunean. Baloi aerostatikoak pisua galdu behar du berehala talka egingo ez baduzue! Bota beste hiru txartel."



Berriz ere baztertutako txartelak bilduko ditugu, eta ondoren, ondo lurreratu direla iragarriko da. Talde bakoitzak paper batean itsatsiko ditu geratzen zaizkion txartelak; horrela, denek gogoratu ahal izango dute zer eraman zuten herrialde berrira. Talde guztiek beren orriak aurkeztuko dituzte, eta azalduko dute zer eraman duten. Deskribapen bakoitza egin ondoren, honako hau galdetuko diegu parte-hartzaileei: bizirauteko behar duzuen zerbait falta al zaizue? Hazteko eta garatzeko zerbait falta al da?

→ JARRAIBIDEAK

Ondoren, eztabaida egiten denean, nabarmenduko dugu denek behar dituztela beren giza eskubideak, eta giza eskubideak gizakien premietan oinarritzen direla. Eskubide horietako batzuk premiazkoak dira bizirik irauteko, hala nola elikagaiak, osasun-arreta, edateko ura eta norbere burua babesteko toki garbi bat; beste batzuk, aldiz, funtsezkoak dira jendea ondo bizi dadin eta pertsonalki garatzeko. Inorentzat ez da nahikoa bizirautea soilik.

Honako galdera hauek egin ditzakegu:



- Nola erabaki zenuen zer bota zenezakeen? Zer da funtsezkoa?
- Erabaki batzuk zailak izan al ziren? Zein?
- Desadostasunik izan al duzue taldean gorde beharreko eta bota beharreko gauzen artean? Nola konpondu dituzue desadostasun horiek?
- Denek al dituzte premia berdinak? Nork izan ditzake premia ezberdinak?
- Zer pentsatzen duzue zuen azkeneko aukeren gainean? Herrialde berrian bizirauteko gai izango al zarete? Hasteko eta ondo garatzeko gai izango al zarete?
- Amaierako emaitzak harritu egin al zaitu?
- Jarduera hori bigarren aldiz egin beharko bazenu, gauza ezberdinak botako zenituzke?
- Zer gauza gorde nahi zenituen eta ondoren erabaki ez zirela funtsezkoak?
- Zer txartelak adierazten dute nahiko genituzkeen gauzak baina bizirauteko [premia-zkoak ez direnak?
- Zer txartelak adierazten dute fisikoki bizirauteko behar ditugun gauzak?
- Zer txartelak adierazten dute ondo hazteko eta garatzeko beharko genituzkeen gauzak?
- Zer gertatuko litzateke herrialde berri horretan ez bazenu _____ izango? (Aukeratu hainbat adibide ezberdin txartelen artean).



Nire iritzia partekatzeko aukerak



Nahi dudana bezala gastatzeko dirua



Ur garbia



Gela bat neuretzat



Ordenagailu eta interneterako sarbidea



Tratu ona eta diskriminaziorik gabekoa



Ingurune garbia



Eskuko telefonoa



Coca-cola eta hanburgesa



Gelditzeko eta jolasteko aukerak



Telebista eta egunkaria



Nire erlijioa praktikatzeko aukerak



Etxe eroso



Modako arropa



Oporrak eta hondartza



Janari elikagarria



Abusuen aurkako babesa



Heziketa



Medikuak



Bizikleta



Goxokiak



Bitxiak



Mp3 gailua edo discmana



Arropa beroak



2. jarduera Haurren eskubideak arrantzatzen ⁵ ★★★



Jardueraren iraupena guztira

50 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 35
Segimendua: 10



Materialak

- Haurren Eskubideen Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa)
- Arrain itxurako txartelak haurren eskubideen eta erantzukizunen gaineko uztaiekin eta irudiekin
- Kanabera amuarekin
- Horma-irudiak




Helburu-adina

6-8 urte
9-12 urte


→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua da parte-hartzaileek **hitz egitea eta pentsatzea zer eskubide eta erantzukizun dituzten**. Are gehiago, parte-hartzaileek ulertu behar dute ez direla soilik arduratu behar beren eskubideen inplementazioaz. Azalduko diegu badagoela laguntza eskatzeko moduko jende fidagarria (esaterako, irakasleak eta adingabeoen ongizateaz arduratzen diren funtzionarioak).

→ GIDOIA



Arrain itxurako txartelak prestatuko ditugu aldez aurretik (adibidez, haur bat jaten ari dela erakutsiz). Arrain guztiek uzta bat behar dute, amudun kanaberarekin harrapatu daitezzen.



Arrainak talde osoaren erdian jarriko dira, mezua beherantz begira.

⁵ Hemendik egokitutako bertsioa: Equitas, Play it Fair! Toolkit, 29. jarduera. Online eskuragarri hemen: https://equitas.org/wp-content/uploads/2015/07/TK_PIF_Sample_2014_FINAL_copyright_web.pdf



C Bata bestearen atzetik, parte-hartzaileek kanaberarekin arrantzatuko dute, txartel bat harrapatu edo "arrantzatu" arte.



D Parte-hartzaileek ikusi dituzten irudiak interpretatu beharko dituzte, eta beren eskubideez eta erantzukizunez hitz egin beharko dute, baita egoera larri batean kontsultatu dezaketen pertsonen ere.



E Harrapatutako arrain guztiak horma-irudi batean itsatsiko dira.

→ JARRAIBIDEAK

Parte-hartzaileei kontatuko diegu zer eskubide eta erantzukizun dituzten:

- Ba al dago aipatu ez den beste eskubiderik?
- Inoiz sentitu al duzu zure eskubideak urratu egin direla edo ez direla errespetatu?
- Ba al dakizu nola eskatu laguntza?



ESKUBIDEAK

- Errespetuz tratatua izateko eskubidea dut
- Nire familian, nire komunitatean eta nire herrialdean seguru izateko eskubidea dut
- Nire ideiak adierazteko eskubidea dut
- Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea dut
- berdintasunez tratatua izateko eskubidea dut, edozein delarik nire adina, nire azalaren kolorea, nire sexua, nire erlijioa, nire iritziak, nire nazionalitatea edo nire kultura
- Izan daitekeen osasun mailarik altuena izateko eta gaixo edo zaurituta nagoenean zaindua izateko eskubidea dut
- Eskolara joateko eskubidea dut
- Abusuaren, indarkeriaren, torturaren eta gerraren aurka babestua izateko eskubidea dut
- Nire erlijioa praktikatzeko eskubidea dut
- Bizirik egoteko eskubidea dut
- Haur-lanetik babestua izateko eskubidea dut
- Ingurumen garbia izateko eskubidea dut
- Ondasunak jabetzeko eskubidea dut
- Etxe txukun bat izateko eskubidea dut
- Elikadura izateko eskubidea dut
- Desgaitasun fisiko edo mental bat izanez gero, zaintza berezia izateko eskubidea dut
- Bizi maila ona izateko eskubidea dut
- Nire gurasoek eta gizarteak ni ulertzeko eta maitatzeko eskubidea dut
- Jolasteko eskubidea dut
- Lagunak izateko eskubidea dut
- Nahastua izateko eta akatsak egiteko eskubidea dut
- Naizena izateko eskubidea dut

ERANTZUKIZUNAK

- Besteak errespetatuko ditut, horiek haurrak edo helduak izan
- Besteen ideiak errespetatuko ditut
- Nire gorputza zainduko dut, osasuntsu izateko
- Nire konpromisoak errespetatuko ditut
- Nire ondasunak zainduko ditut
- Nire aldean ezberdina den jendea errespetatuko dut
- Besteiei lagunduko diet
- Zaintzen nauten gurasoei, irakasleei eta beste helduei lagunduko diet
- Nire aldean kultura edo iragan ezberdina dutenei ongietorria emango diet
- Arduratsua naiz eta segurtasunez jolasten dut
- Ez naiz biolentoa
- Nire ingurunea garbi mantentzen dut eta ingurunea errespetatzen dut
- Ez dut janaririk alferrik galtzen
- Desgaitasun fisikoak edo mentalak dituen jendea errespetatzen dut
- Gizartea arautzen dituzten arauak eta legeak errespetatzen ditut
- Eskolan ahalegindu egiten naiz eta nire eskolako irakasleak eta beste errespetatzen ditut
- Nire lagunekin leiala naiz
- Nire akatsetatik ikasten dut

3. jarduera **Haurren eskubideen grafitia**⁶ ★★☆☆

Jardueraren iraupena guztira
50 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 35
Segimendua: 10

- Materialak**
- Haurren Eskubideen Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa)
 - Prestatu txartelak Haurren eskubideekin
 - Markagailuak
 - Margoak
 - Margotzeko pintzelak
 - Kartoi mehea
 - Ehuna (sortu beharreko artelan motaren arabera)

Helburu-adina
6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA


Jardueraren helburua da **Haurren Eskubideen irudi artistiko bat egitea, artelan kolektibo bat sortuz.**

Ikuspegi artistiko horren bidez, parte-hartzaileek beren eskubideez pentsatu eta hitz egin ahalko dute modu atseginean/egokian.

→ GIDOIA



A Sarrera labur bat egingo dugu Haurren Eskubideen gainean, Haurren Eskubideen Konbentzioaren haurrentzako bertsioa oinarritzat harturik.



B 4 edo 5 parte-hartzaile arteko talde txikiak sortu eta Haurren Eskubideen Txartelak banatuko ditugu (1-2 eskubide talde bakoitzeko).

⁶Hemendik egokitutako bertsioa: Equitas, *Play it Fair! Day*



C Lehenik, parte-hartzaileek eztabaidatu dezakete zeri buruzkoa den beren txartelean jasotako eskubidea.



D Taldeko eztabaida egin ondoren, talde bakoitzak eztabaidatutako emaitzak eta gaiak aurkeztuko ditu, eta horiek zer esan nahi duten azalduko du (adibidez: "Haur guztiek jolasteko eskubidea dute", "Haur guztiek errespetatuak izateko eskubidea dute").



E Ondoren, talde bakoitzak lehenago eztabaidatu duten eskubidearen gaiaren gainean artelan bat sortu beharko du. Amaieran, taldeek beren artelanak aurkeztuko dizkiete beren ikaskideei.

→ JARRAIBIDEAK

Aurkezpena eta eztabaida egin ondoren, honelako galderak egingo dizkiegu parte-hartzaileei:

- Nola sentitu zinen zure eskubideez pentsatzean eta hitz egitean?
- Zergatik aukeratu zenuen zuri egokitutako eskubidea aurkeztu zenuen moduan aurkeztea?
- Zer izan da beste artelanetan gustuko izan duzuna?





Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua